



**LEA ARTIBAI
AMANKOMUNAZGOA**

DROGA GAIETAKO PREBENTZIO ZERBITZUA

Patrokua Jauregia - Xemein Etorbidea, 13

48270 MARKINA-XEMEIN

Tfnoa: 94 6169078 - Faxe: 94 6169278

Helbide e.: prebentzioa@lea-artibai.org

Web orrialdea: www.lea-artibai.org

**GAITASUNAK IKASTEN, LAGUNTZEKO
GURE SEME-ALABEI/IKASLEEI/UME-GAZTEEI**

Seme-alabak hezteak ez da inoiz erraza izan gurasoentzako baina gauregun korapilotsuago edota aldrebesagoa da, seguraski gure gizarteak bizi dituen aldaketa haundiek eraginda eta horiei dagozkien bizi estiloak atxikituta.

Egoera berri honek gure ume eta adoleszenteen garapen osasuntsuan arrisku gehiago dakar, eta horrek "ahulagoak" egin ditzake, ez badute hezitzaileengandik laguntza egokia hartzen: irakasleriarengandik eta bereziki gurasoengandik.

Ume eta gazteek aurre egin behar dien arrisku psikosozialen artean ondorengo hauek aipa ditzakegu: portaera agresiboak (euren artean eta gurasoekin), adikzioak (sustantzien eta Teknologia berrien gehiegizko erabilera...) berdinen arteko biolentzia eta horrek daraman giza bazterkeria, genero biolentzia, eskola porrota, ...

Horregatik, uste dugu gurasoek eta hezitzaile guztiok orohar, formazio integrala eta praktikoa behar dugula, gure gaitasunak indartuz eta bizitzarako trebetasunak martxan jarritz, gure seme-alabei/ikasleei/ume zein gazteei laguntzeko.

Horrela ba, pentsatu dugu maiatzaren 21ean, guztiontzat jornadak egitea, guraso, irakasle, hezitzaile orori zuzenduta... Jornadak goiz zein arratsalde izango dira, bakoitzaren ordutegiaren arabera, hobekien datorrena aukeratzeko. Jornada hauek Hilario Garrudo psikologo klinikoaren esku izango dira.

Amaitzeko esan, parte hartzeko izena eman behar dela maiatzaren 20rako eta horretarako, zure inguruko hezitzaileei, gurasoei informazioa zabaltzea eskertuko genizueke.

Beste barik, bertan elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaituztet.

Lea Artibai Amankomunazgoko Lehendakaria
Javier Abasolo Azcorra

Markina-Xemein, 2014ko maiatzak 5

